

## Videoteca de Baketik

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as... Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en [www.baketik.org](http://www.baketik.org))

## Temática

### Duelo, ayuda, gratitud

**Duelo.** Es el proceso que vivimos tras una pérdida, que puede ser vivida de formas muy diversas. La película nos muestra los sentimientos que viven aquellas personas que ven cerca su propia muerte y las que han perdido a un ser querido.

**Ayuda.** Partiendo de la voluntad de querer ayudar a otras personas, aparecen distintas actitudes y decisiones: la persona que necesita ayuda, la que quiere ayudar, la que niega toda ayuda o los aspectos éticos de la naturaleza de esa ayuda.

**Gratitud.** Aún y atravesando situaciones de dificultad y sufrimiento, la vida tiene regalos para darnos. La gratitud hacia estos regalos es clave en la evolución personal de los personajes.

## Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película...

**...hacia adentro.** Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

**...hacia fuera.** Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

**...no solo con la cabeza,** también con el corazón. Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

**...y después de algún tiempo repensar.** Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

## Algunas preguntas...

### ...antes de la película

·Sobre el duelo: ¿Qué es el duelo? ¿Es importante vivirlo? ¿Por qué? ¿Cómo reacciona la sociedad ante una persona en duelo? ¿Y en general ante la muerte?

·Sobre la ayuda: ¿Es lícito ayudar a alguien que no pide ayuda? ¿La ayuda en estos casos puede empeorar la situación? ¿Es fácil pedir ayuda?

·Sobre la gratitud: ¿Qué mantiene la esperanza viva en situaciones difíciles? ¿Crees que se puede aprender algo positivo de las situaciones de sufrimiento?

### ...después de la película

·¿Qué camino elige Howard para hacer frente a la muerte de su hija? ¿En qué le puede ayudar escribir las cartas? ¿Crees que es una forma eficaz de enfrentar el duelo?

·¿Crees que Claire, Whit y Simon actúan por sus propios intereses? ¿O quieren ayudarle de verdad? ¿Es su decisión ética? ¿Por qué?

·¿A qué se refiere el concepto de belleza oculta? ¿Cómo se puede percibir? ·Howard escribe al amor, al tiempo y a la muerte. ¿Ves alguna relación entre estos conceptos? ¿Qué te ha llegado más de los mensajes que aportan a Howard?

·Claire, Whit y Simon tienen que enfrentar distintas situaciones personales relacionadas con el amor, la muerte y el tiempo. ¿Qué aprendizajes saca cada una de ellas?

Con la colaboración de Eneritz Zabaleta.

## Belleza oculta

### Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: Collateral Beauty.

AÑO: 2016.

DURACIÓN: 94 min.

PAÍS: EEUU.

DIRECCIÓN: David Frankel.

REPARTO: Will Smith, Edward Norton,

Kate Winslet, Michael Peña, Naomie Harris, Helen Mirren, Keira Knightley, Jacob Latimore, Enrique Murciano, Kylie Rogers, Nataile Gold, Liza Colon-Zayas, Toshiko Onizawa, Nicole Bonifacio, Liz Celeste.

PRODUCCIÓN: New Line Cinema.

### Sinopsis

Howard es un renombrado publicista que verá su vida radicalmente cambiada por un desafortunado suceso, llevándole a una profunda depresión. Sus amistades y colegas Claire, Whit y Simon pondrán en marcha un original plan para ayudar a Howard.

## Zeurekin eta besteekin bizitzeko zinema

# Belleza oculta



baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

943-25 10 05

[www.baketik.org](http://www.baketik.org)

baketik

## Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzaerakin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago [www.baketik.org](http://www.baketik.org) webgunean)

## Gaiak

### Dolua, laguntza, eskertasuna

**Dolua.** Galera baten ondoren bizi dugun prozesua da, era oso ezberdinetan bizi daitekeena. Norbere heriotza hurbil ikustean zein maite den norbait galtzean bizitzen diren sentipenak azaltzen dizkigu filmak.

**Laguntza.** Besteari laguntzeko helburutik abiatuta jarrera eta erabaki desberdinak agertzen dira: laguntza behar duena, lagundu nahi duena, laguntza ukatzen duena edo laguntza horren izaeraren alderdi etikoak azaltzen zaizkigu.

**Eskertasuna.** Zailtasun eta sufrimendu egoeretan murgilduta ere, bizitzak opariak ematen ditu. Opari hauekiko esker ona giltzarria da pertsonaien garapen pertsonalean.

### Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

**...barrura begira.** Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

**...kanpora begira.** Taldean edota familian elkarriketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

**...ez bakarrik arrazoiarekin,** baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

**...eta denbora baten buruan,** berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

### Zenbait galdera...

#### ...pelikula ikusi aurretik

·Doluari buruz: Zer da dolua? Garrantzitsua al da dolua bizitzea? Zergatik? Doluan murgildurik dagoen pertsonaren aurrean nola erantzuten du gizarteak? Eta orokorrean heriotzaren aurrean?

·Laguntzari buruz: laguntza eskatzen ez duenari laguntzen saiatzea zilegi al da? Laguntzeagatik gauzak okerrera egitea gerta liteke? Laguntza eskatzea erraza al da?

·Eskertasunari buruz: zerk mantentzen du itxaropena une zailetan? Sufrimendu egoeretatik zerbait positiboa ikasi daitekeela uste al duzu?

#### ...pelikula ikusi ondoren

·Howard bere alabaren heriotzari aurre egiteko zein bide aukeratu du? Zertan lagun diezaioke idazten dituen gutunak idazteak? Doluari aurre egiteko modu eraginkor bat dela uste al duzu?

·Claire, Whit eta Simonek euren interesak babestea soilik al dute helburu? Edota benetan lagundu nahi diote? Erabaki etikoa al da? Zergatik?

·Zeri egiten dio erreferentzia ezkutuko edertasuna kontzeptuak? Nola lor liteke hau antzematea?

·Maitasunari, denborari eta heriotzari idazten die Howard. Beraien artean erlaziorik ba al dago? Zer iritsi zaizu gehien Howardi helarazten dizkieten mezuetatik?

·Claire, Whit, eta Simonek maitasunari, heriotzari eta denborari loturiko egoera desberdinei aurre egin behar die. Zein ikaskuntza ateratzen du bakoitzak?

Eneritz Zabaletaren laguntzarekin.

Cine para **vivir y convivir**

## Belleza oculta



## Belleza oculta

### Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Collateral Beauty.

URTEA: 2016.

IRAUPENA: 94 min.

HERRIALDEA: Ameriketako Estatu Batuak.

ZUZENDARIA: David Frankel.

AKTORE-ZERRENDA: Will Smith,

Edward Norton, Kate Winslet, Michael Peña, Naomie Harris, Helen Mirren,

Keira Knightley, Jacob Latimore, Enrique Murciano, Kylie Rogers,

Nataile Gold, Liza Colon-Zayas, Toshiko Onizawa, Nicole Bonifacio, Liz Celeste.

EKOIZPEN-ETXEA: New Line Cinema

### Sinopsia

Howard publizista ospetsu bat da, baina ezusteko zoritxar baten ondorioz bere bizitza guztiz aldatuko da, eta, horren eraginez, depresio sakon batean murgilduko da. Bere lagun eta lankide Claire, Whit eta Simonek plan original bat martxan jarriko dute Howardi laguntzeko.

baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

943-25 10 05

[www.baketik.org](http://www.baketik.org)

baketik